

ARRASATE HIRIA XIX. XAKE TORNEOA

(2019ko abenduaren 26tik 29ra, Arrasaten)

Arrasateko San Andres Xake Elkarteko egoitzan jokatu zen torneo hau. 90 minutuko 5 partida izan ziren, gehi 30 segundo jokaldiko.

AZKENEKO SAILKAPENA

- 1) **Mikel Huerga Leache (Nafarroa, Euskal Herria) (2.458) – 4'5 puntu.**
- 2) **Alejandro Franco Alonso (Espainia, Gipuzkoan bizi dena) (2.394) – 4 puntu.**
- 3) **Igor Villalta Bustillo (Araba, Euskal Herria) (2.214) – 4 puntu.**
- 4) Aritz Morante Rafael (Araba, Euskal Herria) (2.124) – 4 puntu.
- 5) Raul Pindado Campos (Espainia) (2.106) – 3'5 puntu.
- 6) Alain Prieto Aranguren (Bizkaia, Euskal Herria) (2.277) – 3'5 puntu.
- 7) Iñigo Axpe Balenciaga (Bizkaia, Euskal Herria) (2.125) -3'5 puntu.

Orotara, 34 jokalari.

MIKEL HUERGAREN HIRUGARREN TORNEO GARAIPENA DENBORA GUTXIAN



Mikel Huerga Leache, sariekin.

Mikel Huerga Leache 30 urteko iruindarra sasoiari dago. Hiru torneo irabazi ditu denbora gutxian.

Trofeoaz gain, 600 euro irabazi zituen. Torneo honetan bere bigarren garaipena izan zen, 2015ean ere eskuratu baitzuen.

Arrasaten lehenengo hiru partidak irabazi zituen, jokalaria hauen aurka: Hugo Pelegrin Gomez (1.837), Fernando Arauz Alonso (2.117) eta Igor Villalta Bustillo (2.214). Laugarrenean, 2.394ko Alejandro Franco Alonsorekin berdindu zuen. Azkeneko partida erabakigarria 2.392ko David Astasio Lopez arabarraren aurka izan zen eta puntua eskuratu zuen, beltzekin jokatu arren.

Eloko 7'30 puntu irabazi zituen eta horrela 2.500eko langara hurbildu zen. Langa horretara iristea behar du Maisu Handi bihurtzeko. Baliteke, horrela segituz gero.

Luis David Jimenez Almeida nafarra 11. postuan sailkatu zen. Aritz Morante Rafaelen aurka galdu zuen azkeneko partida eta horrek goikoen parean geratzea eragotzi zion.

2019-12-29.

Iturria: “<https://info64.org/xix-arrasate-hiria-xake-txapelketa/standings>”.